



**UDALBATZAK 2011KO UZTAILAREN 26AN  
EGINIKO EZOHIKO OSOKO BILKURARI  
DAGOKION AKTA**

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE  
PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL  
DIA 26 DE JULIO DE 2011**

Errenteriako udaleko bilkura-aretoan, bi mila hamaikako uztailaren 26ko arratsaldeko 18:30 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 26 de julio del año dos mil once, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Don Julen MENDOZA PÉREZ, los siguientes Concejales:

- Garazi LÓPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Luis Maria DIEZ GABILONDO
- Miren Alazne KORTA ZULAIKA
- Unai UNSUAIN ELVIRA
- Irune BALENCIAGA ARRESE
- Jon TXASKO ORGILLES
- Asier MUJIKA ETXANIZ
- Juan Carlos MERINO GONZALEZ
- Maria RODRIGUEZ RODRIGUEZ
- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Joseba ECHARTE MARTIN
- M<sup>a</sup> Angeles MACHIN RODRIGUEZ
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- M<sup>a</sup> del Mar CARRILLO GASCON
- Maite PEÑA LOPEZ
- Jose Ignacio IRASTORZA GARCIA
- Marta BAREA JUARISTI
- Jose Manuel HERZOG DE BUSTOS
- M<sup>a</sup> Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO

- Garazi LÓPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Luís María Díez Gabilondo
- Miren Alazne KORTA ZULAIKA
- Unai UNSUAIN ELVIRA
- Irune BALENCIAGA ARRESE
- Jon TXASKO ORGILLES
- Asier MUJIKA ETXANIZ
- Juan Carlos MERINO GONZÁLEZ
- María RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ
- Joaquín ACOSTA PACHECO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- M<sup>a</sup> Ángeles MACHÍN RODRÍGUEZ
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- M<sup>a</sup> del Mar CARRILLO GASCÓN
- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Ignacio IRASTORZA GARCIA
- Marta BAREA JUARISTI
- José Manuel HERZOG DE BUSTOS
- M<sup>a</sup> Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ
- José Manuel FERRADÁS FREIJO

Bertan dago, egintzaz fede emateko, behin-behineko idazkari Tomas MARTIN AZPILLAGA jauna.

Asiste y da fe del Acto, el Secretario General Acctl. D. Tomás MARTÍN AZPILLAGA.

**1. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak (382 zk.tik 796 zk.ra, biak barne), Zinegotzi-ordezkarienak (722 zk.tik 1133 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrarenak.**

**1.- Conocimiento de Resoluciones del Alcalde (nº 382 al 796, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 722 al 1133, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

Ondorengo ebazpenen berri ematea:

Se da cuenta de las Resoluciones del



Alkatetzarenak (382 zk.tik 796 zk.ra, biak barne), Zinegotzi-ordezkariek (722 zk.tik 1133 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrarenak.

Alcalde (nº 382 al 796, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 722 al 1133, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**2. Alkatetzak 2011ko uztailaren 1ean emaniko dekretuaren —707 zk.koa—berri ematea, J.M. Ferradas jauna Unai Unsuain jaunaren ordezkariaren ordez hartuko dena izendatzeko.**

**2.- Conocimiento del Decreto de Alcaldía nº 707, de fecha 1 de julio de 2011 por el que se nombra miembro de la Junta de Gobierno a J.M. Ferradás en sustitución de Unai Unsuain.**

Ondorengo Alkatetza-dekretuaren berri eman da:

Se da cuenta del siguiente Decreto de Alcaldía:

Ekainaren 27an, Alkate honek legegintzaldi honetarako Gobernu Batzarreko partaideak izendatu zituen. Alabaina, ondoren izandako elkarriketak direla eta, bidezkoa ikusi du lehengo osaketa aldatzea, orain Jose Manuel Ferradas Freijo jauna (Errenteriako Ezkerra) Unai Unsuain Elvira jaunaren (Bildu) ordezkari izendatu da. Ordezkatzeko argudioen artean kontuan hartu behar da Ferradas jaunak berak ondoren egiten duen adierazpena:

En fecha de 27 de junio de los corrientes, este Alcalde procedió a designar la composición de la Junta de Gobierno para la presente legislatura. Sin embargo, como consecuencia de conversaciones mantenidas, considera conveniente modificar la anterior composición con la designación de José Manuel Ferradas Freijó (Errenteriako Ezkerra) en sustitución de Unai Unsuain Elvira (Bildu). Entre los argumentos programáticos de la sustitución ha de incluirse la declaración que el propio Sr. Ferradas realiza de la siguiente manera:

*“Errenterian jada berezkoa bihurtu da, migrazio-fluxuak direla eta, jatorri-aniztasuna. Lehen espainiar estatutik etorritako ohiko pertsonen fluxuari (egun bertan dirautenak) orain hainbat herrialde eta mundu guztiko tokietatik gero eta gehiago iristen ari direnak gehitu behar zaizkio.*

*“La diversidad de orígenes como producto de los flujos migratorios es consustancial a Errenteria. Al tradicional flujo de personas venidas de los diferentes pueblos del estado español (flujos que permanecen en la actualidad), ahora le debemos añadir la llegada, cada vez en mayor medida, de personas de diversos países y lugares del mundo.*

*Horrela, kontu hori kudeatzea gure gizartearentzat eta administrazio publiko ezberdinentzat (Udalarena barne) erronka bihurtu da. Hortaz, Gobernu talde honek adierazten du gure esku-hartzea elkarrekiko errespetua eta errekonozimendua aintzat hartzen dituen politikak bultzatzeko izango dela, hots, herri honetako zati*

*La gestión de dicho fenómeno se ha convertido en un reto para nuestra sociedad y para las distintas administraciones públicas, incluida la municipal. Este equipo de gobierno manifestamos que nuestra intervención estará orientada a impulsar políticas de mutuo respeto y reconocimiento, que garanticen los derechos y el cumplimiento de las*



*garen pertsona guztien eskubideak eta betebeharrak ezberdinak beteko dituen.*

*Gisa horretan, Udalak ekimena hartu eta ondorengo eremu eta baliabideak ezarriko ditu:*

*Lehenengo urrats modura, hausnarketarako, topaketa eta eztabaidarako gune bat sortuko dute Udala eta giza-agente ezberdinen artean, hain zuzen elkar ezagutu eta errekonozitzeko.*

*Erdietsi beharreko beste helburu bat zera da: elkarbizitzako kontu honek izan dituen eta dituen elementu arazotsuak, aberasgarriak, aukerak eta mugak elkarrekin hauteman. Hautemate honek ahalbideratuko baitigu giza-konpromisoak eta instituzionalak hartzeko oinarriak ezarri eta aurrerantzean nondik nora jo behar den jakitea.*

*Prozesu hau irekia, ez baztertzaila eta parte-hartzaila izatea. Nahi dugu herritarrek (jatorri ezberdinak kontuan hartu gabe) eta hauen kolektiboek inplikatzeko eta esku hartzea.*

*Azken finean, herri honetako bizitzan, Errenteriakoan alegia, pertsonak eta giza-agenteei parte hartu, partekatu eta inplikatzeko nahi dugu."*

*Eta Alkatetza honek, bere egiten duenez aurreko adierazpena, Legeak ematen dizkion eskumenak baliatuta,*

## ERABAKI DU

**1.** Jose Manuel Ferradas Freijo izendatzea Errenteriako Udalaren Gobernu Batzarreko partaide Unai Unsuain Elvira jaunaren ordez.

**2.** Izendaturiko zinegotziak aurreko

*distintas obligaciones a todas las personas que somos parte de este pueblo.*

*El Ayuntamiento va a tomar la iniciativa y va a propiciar espacios e instrumentos para que:*

*1 Como primer paso, generar un espacio de reflexión, encuentro y debate, entre el Ayuntamiento y los diferentes agentes sociales, posibilitando el conocimiento y reconocimiento mutuos.*

*2 Otro de los objetivos a alcanzar es detectar, conjuntamente, los elementos problemáticos, los enriquecedores, las posibilidades y las limitaciones que ha tenido, y tiene, esta temática en la convivencia. Detección que nos debe permitir establecer las bases para crear compromisos sociales e institucionales, así como líneas de intervención futuras.*

*3 Este proceso es abierto, no excluyente y participativo, y queremos la ciudadanía (más allá de sus diferentes orígenes) y sus colectivos, se impliquen y se involucren.*

*En definitiva, queremos involucrar, compartir e implicar tanto a las personas y agentes sociales en la vida de este municipio, en Errenteria."*

*Esta Alcaldía hace suya la declaración anterior y en consecuencia, en el uso de las atribuciones que la Ley le confiere*

## ACUERDA

**1º.-** Designar a José Manuel Ferradas Freijo miembro de la Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Errenteria en sustitución de Unai Unsuain Elvira.

**2º.-** El concejal designado llevará a cabo las



adierazpenean sartutako eta Alkatetza honi dagozkion udal eginkizunak burutuko ditu, hala nola kudeaketaren berri Tokiko Gobernu Batzarrean emango.

**3.** Erabaki honen berri ematea, bidezko ondorioetarako, afektaturiko zinegotziei eta udal zerbitzu ezberdinetako buruei.

**4.** Erabaki honen berri ematea Udaltzari Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 38. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko egingo den deialdian. Era berean, argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**3. Alkatetzak 2011ko uztailaren 7an emaniko dekretuaren —724 zk.koa—berri ematea, hainbat arlo eta zerbitzu berezietako ordezkariak izendatzeko.**

Ondorengo Alkatetza-dekretuaren berri eman da:

Maiatzaren 22an udal hauteskundeak egin ondoren eta Udaltzara berria eratu ostean, Udalaren jarduera lehenbailehen abian jartzeko xedez, Alkate honek bidezkoa ikusi du, beti ere apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Tokiko Araubide Oinarriak arautzen dituen, 21.3 eta 23.4 artikulua emaniko eskumenak baliatuta —apirilaren 21eko 11/1999 Legeak berri emaniko idazketa berriaren arabera eta bat datorren gainontzeko legeria kontuan izanik—, ondorengo zinegotziak izendatzea jarraian adieraziko diren eginkizunak burutzeko.

tareas municipales que se hallen incluidas en la declaración anterior en lo que compete a esta Alcaldía y dará cuenta de su gestión ante la Junta de Gobierno Local.

**3º.-** Comunicar esta resolución a todos los Concejales afectados y a los Jefes de los diferentes Servicios Municipales, para su conocimiento y efectos.

**4º.-** Dar cuenta al Pleno de esta resolución, en la sesión que se convoque para dar cumplimiento a lo previsto por el artículo 38 de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales. Asimismo proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

El Pleno queda enterado.

**3.- Conocimiento del Decreto de Alcaldía nº 724, de fecha 7 de julio de 2011, relativo a diversas delegaciones de Áreas y servicios específicos.**

Se da cuenta del siguiente Decreto de Alcaldía:

Una vez celebradas las Elecciones Locales el pasado día 22 de mayo, constituido el nuevo Ayuntamiento, y con el objeto de dotar de una mayor celeridad y eficacia a la actuación municipal, esta Alcaldía, en uso de las facultades que le confieren los artículos 21.3 y 23.4 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, en la nueva redacción dada a la misma por la Ley 11/1999, de 21 de abril, y demás legislación concordante, considera necesario proceder al establecimiento de un régimen de delegaciones de competencias a favor de los miembros de la Corporación que se citan.



Kontuan izanik lehen aitaturiko legeriaren arabera, Alkatetza honek eskuordetu ditzake Tokiko Araubide-oinarriak arautzen dituen Legearen 21.3 artikulua —egungo idazketaren arabera— eta 30/1992 Legearen 13. artikulua, azaroaren 26koa, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutakoa, aurreikusi gabeko eskumenak, hain zuzen horietan arautzen direlako eskuordetu ezin litezkeen eskumenak.

Kontuan izanik, halaber, UAOren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, informazio-batzordeetako burutza Alkateak nahierara eskuordetu ditzakeela.

Horregatik, Alkate honek, legeak aitortzen dizkion eskumenak baliatuta,

## ERABAKIDU

**LEHENENGO.-** Ezabatzea Luis Maria Diez Gabilondo zinegotziari 2011-06-27an, 688 zk.ko dekretu bidez eskuordeturiko Trafiko eta Garraio arloko eskuduntza.

**BIGARREN.-** Ondoren aitatzen diren zinegotziei euren alorrei dagozkien gaiak **kudeatzeko eta erabakiak hartzeko eskumenak eskuordetzea**, hots, jarraian, azalpen gisa, ezagutzera ematen direnetarako.

### Trafiko eta Garraio arloa

Considerando que de conformidad con la legislación a la que se ha hecho referencia anteriormente, esta Alcaldía puede delegar el ejercicio de sus atribuciones siempre y cuando no se encuentren dentro de los supuestos previstos por el artículo 21.3 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, en su redacción actual, y por el artículo 13 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, del régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en la nueva redacción dada al mismo por la Ley 4/1999, de 13 de enero, en los que se regulan las competencias que no pueden ser objeto de delegación.

Considerando igualmente que a tenor de lo dispuesto en el art. 75 del ROM, la presidencia de las comisiones informativas puede ser delegada por el Alcalde con carácter discrecional en el Delegado del Área correspondiente.

Esta Alcaldía, en uso de las atribuciones que legalmente tiene conferidas

## RESUELVE

**PRIMERO.-** Revocar la delegación efectuada en el Concejal Luis María Díez Gabilondo en Decreto nº 688 de fecha 27/06/2011 respecto al Área de Tráfico y Transportes.

**SEGUNDO.-** Efectuar a favor de los Concejales que se citan una **delegación general de atribuciones de gestión y resolución** de los asuntos de sus respectivas áreas de actuación y respecto de los campos de actuación que, a título enunciativo, se recogen a continuación en relación con cada una de ellas:

### **Area: Tráfico y Transportes**



**Zinegotzia: Jon Txasko Orgilles.**

Jardun-eremua: Ordezkaritza hau dela eta, ahalmena izango du dagokion arloetako zuzendaritza eraman, kudeaketa egin, tramitezko edo behin-betiko dokumentuak sinatzeko, ordezkaritzaren baitan exekutatu beharrekoak exekutatzeko ebazpen-proposamen eta dekretuak egiteko eta, bereziki, ondoren adierazten direnetarako:

- Herriko trafiko-fluxua aztertu Udaltzainburuarekin batera, eta proposamenak egiteko.

- Herriko aparkaleku-arazoa aztertu eta proposamenak egiteko.

- Aparkaleku-mugatua zaintzen duten enpresa-lesleipendunekin harremanak izateko.

- Trafiko-isunak eta Alkateak azpisailaren eskumenen barruan gomendatzen duen gainontzeko gauzak egiteko.

**Gizarte Zerbitzuak arloa:**

**Zinegotzia: Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi**

Jardun-eremua: Ordezkaritza hau dela eta, ahalmena izango du dagokion arloetako zuzendaritza eraman, kudeaketa egin, tramitezko edo behin-betiko dokumentuak sinatzeko, ordezkaritzaren baitan exekutatu beharrekoak exekutatzeko ebazpen-proposamen eta dekretuak egiteko eta, bereziki, ondoren adierazten direnetarako:

- Errenteriako Udaleko ordezkaritza

**Concejal: Concejal Jon Txasko Orgilles**

Ambito funcional: La delegación comportará tanto la facultad de dirección del áreas correspondiente, como su gestión, la firma de cuantos documentos de trámite o definitivos, incluidas las propuestas de resolución y decretos sean necesarios para la ejecución de la citada delegación y, en especial, las que a continuación se indican:

- Estudio y propuesta de los flujos de tráfico rodado en el municipio contando con la participación del Jefe de la Policía Local.

- Estudio y propuesta de la problemática del aparcamiento en la ciudad.

- Relaciones con las empresas adjudicatarias de los servicios de estacionamiento limitado en el tiempo.

- Sanciones de tráfico y cuantas otras funciones encomiende el Alcalde dentro de las competencias de la subárea.

**Area: Servicios Sociales**

**Concejal: Garazi López de Etxezarreta Auzmendi**

Ambito funcional: La delegación comportará tanto la facultad de dirección de las áreas correspondientes, como su gestión, la firma de cuantos documentos de trámite o definitivos, incluidas las propuestas de resolución y decretos sean necesarios para la ejecución de la citada delegación y, en especial, las que a continuación se indican:

- La representación del Ayuntamiento de



Alkatetzaren eskumeneko dokumentuak eta hitzarmenen sinaduretan esku hartzeko.

Errenteria para intervenir en la firma de los documentos y convenios de competencia de Alcaldía.

- Diru-laguntzak partikularrei eta elkarteei emateko.

- Subvenciones a particulares y asociaciones.

- Gizarte Larrialdiko Laguntzak emateko.

- Concesión de Ayudas de Emergencia Social (AES).

- Elbarriek ibilgailuak aparkatzeko txartelak emateko.

- Tarjeta de estacionamiento de vehículos para minusválidos.

- Ordezkaritzari dagozkion egintza edo ebazpenen ziurtagiriak, baita Departamentuan dauden artxibo eta agirien ingurukoak egiteko ere.

- Certificaciones relativas a actos o resoluciones de la Delegada, así como a los archivos y documentos existentes en el Departamento.

Adierazitako eginkizunak ez dira zehatz-mehatzak, eta beraz, Alkateak eskuordeturiko eskumenak hobeto osatzeko gomenda diezaienekin osatuko dira.

La relación funcional anterior no es exhaustiva y se completará con todas aquellas funciones que le encomiende el Alcalde para el mejor cumplimiento de las competencias delegadas.

**Ogasun arloa:**

**Área: Hacienda**

**Zinegotzia: Jon Txasko Orgilles**

**Concejal: Jon Txasko Orgilles**

Jardun-eremua: Ordezkaritza hau dela eta, ahalmena izango du dagokion arloetako zuzendaritza eraman, kudeaketa egin, tramitezko edo behin-betiko dokumentuak sinatzeko, ordezkaritzaren baitan exekutatu beharrekoak exekutatzekeo ebazpen-proposamen eta dekretuak egiteko eta, bereziki, ondoren adierazten direnetarako:

Ambito funcional: La delegación comportará tanto la facultad de dirección del área correspondiente, como su gestión, la firma de cuantos documentos de trámite o definitivos, incluidas las propuestas de resolución y decretos sean necesarios para la ejecución de la citada delegación y, en especial, las que a continuación se indican:

- Bete arazteko ordezkatutako arloari eragiten dien ordenantzak, araudiak eta udal akordioak.

- Hacer cumplir las Ordenanzas, Reglamentos y acuerdos municipales en lo que afecten a su Area de Delegación.

- Laguntzeko aurrekontu-proiektua egin eta

- Colaborar en la formación de Proyectos de



aldaketak ematen direnean, beti ere Udalbatzak onartzeko nahiko aurrerapenekin.

- Diru-bilketa eta Diruzaintza zerbitzuak antolatzeko, Udalbatzak zerbitzu horiek onartzeko eta kudeatzeko duen eskumenari kalterik egin gabe.

- Udal eskumena duen organoari eskuordeturiko arloaren egitura eta antolaketa edo berrikuntza proposatzeko, beti ere teknikarien aholkuak kontuan izanik.

- Udaleko ekonomia-zerbitzuak planifikatu eta zuzentzeko.

- Zergak eta gainontzeko eskubide ekonomikoak errekonozitu, kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko. Zehazki ondorengoak:

- Zerga-errolak onartzeko.

- Likidazioak onartzeko.

- Erreklamazio-mota guztiak ebazteko.

- Ondorengo gastuei buruzko ordaintze-agiriak ordenatu eta sinatzeko:

- Langileriaren ordainsariak eta Gizarte Segurantzak eta ELKARKIDETZAKO kuotak.

- Zinegotzien ordainsariak, konpentsazioak eta dietak akordaturiko zenbateko edo kredituen arabera.

- Erretiroak eta pentsioak.

- Alkatetzak edo Zerbitzuetako ordezkariak agindutako dietak, joateak eta bidaia-gastuak.

Presupuestos Municipales y sus modificaciones, con la antelación necesaria para que sean aprobados por el Pleno de la Corporación.

- Organizar los servicios de Recaudación y Tesorería, sin perjuicio de la facultad del Pleno para aprobar las formas de gestión de estos servicios.

- Proponer al órgano municipal competente la estructuración y organización del área objeto de delegación o su reforma, recabando los asesoramientos técnicos oportunos.

- Programar y dirigir los servicios económicos municipales.

- Reconocer, gestionar, liquidar, inspeccionar y recaudar los tributos, rentas y demás derechos económicos, y en concreto:

- La aprobación de los padrones fiscales.

- La aprobación de las liquidaciones.

- La resolución de todo tipo de reclamaciones.

- Disponer y ordenar, mediante la firma de los respectivos Mandamientos de Pago, los gastos siguientes:

- Retribuciones del personal y cuotas de la Seguridad Social y ELKARKIDETZA.

- Remuneraciones, compensaciones, dietas de Corporativos, según importes o créditos acordados.

- Jubilaciones y pensiones.

- Dietas, asistencias y gastos de viaje ordenados por la Alcaldía o Delegados de Servicios.





- Pertsonen edo erakunde zenbaiten izenean egiten direnak, edo zerbitzu zenbaitentzako eta Aurrekontuan zehatz-mehatz bereziki aurreikusitakoak. Esaterako: Patronatuak, Mankomunitateak, etab.

- Bestelako gastuak egiteko, hala nola, mota guztietako alokairuak, erregaiak erdiesteko eta 300,50 € gainditzen ez duten gastu jakin batzuetarako.

- Faktura-zerrendak ordaintzeko ordainketa-aginduak sinatu.

Adierazitako eginkizunak ez dira zehatz-mehatzak, eta beraz, Alkateak eskuordeturiko eskumenak hobeto osatzeko gomenda diezaienekin osatuko dira.

### **Berdintasunerako arloa**

#### **Zinegotzia: Iruñe Balenciaga Arrese.**

Jardun-eremua: Ordezkaritza hau dela eta, ahalmena izango du dagokion arloetako zuzendaritza eramanez, kudeaketa egin, tramitezko edo behin-betiko dokumentuak sinatzeko, ordezkaritzaren baitan exekutatu beharrekoak exekutatzeke ebazpen-proposamen eta dekretuak egiteko, hala nola Udala honek bultzatuko dituen berdintasunerako politikak garatzeko. Eginkizun horiek, batez ere, Errenteriako Berdintasunerako Plana eta Emakumea: topaketak eta gizarte parte-hartze programaren bidez.

Aurreko eginkizunak Alkateak ordezturiko eskumenak hobeto osatzearren gomenda ditzakeen guztiekin osatuko da.

- Cantidades a nombre de personas o entidades determinadas o presupuestadas especialmente para ciertos servicios y previstas en Presupuesto de modo exacto. Tales como: Patronatos, Mancomunidades, etc.

- Otros gastos tales como: alquileres de todo tipo, adquisición de combustibles y carburantes, y determinados gastos siempre que su importe global no supere los 300,50 €.

- Firmar los Mandamientos de Pago correspondientes a las relaciones de facturas.

La relación funcional anterior no es exhaustiva y se completará con todas aquellas funciones que le encomiende el Alcalde para el mejor cumplimiento de las competencias delegadas.

### **Área: Igualdad**

#### **Concejal: Iruñe Balenciaga Arrese**

Ámbito funcional: La delegación comportará tanto la facultad de dirección del área correspondiente, como su gestión, la firma de cuantos documentos de trámite o definitivos sean necesarios, incluidas las propuestas de resolución y decretos, para el desarrollo de las políticas de igualdad que se vayan a impulsar desde el Ayuntamiento. Dicha labor se desarrollará, sobre todo, a través de la ejecución del Plan de Igualdad de Errenteria y del programa "Mujer: encuentros y participación social".

La relación funcional anterior se completará con todas aquellas funciones que le encomiende el Alcalde para el mejor cumplimiento de las competencias delegadas.



**Euskara arloa**

**Área: Euskera**

**Zinegotzia: Irune Balenciaga Arrese**

**Concejal: Irune Balenciaga Arrese**

Jardun-eremua: Ordezkaritza hau dela eta, ahalmena izango du dagokion arloetako zuzendaritza eramán, kudeaketa egin, tramitezko edo behin-betiko dokumentuak sinatzeko, ordezkaritzaren baitan exekutatu beharrekoak exekutatzeko ebazpen-proposamen eta dekretuak egiteko:

Ámbito funcional: La delegación comportará tanto la facultad de dirección del área correspondiente, como su gestión, la firma de cuantos documentos de trámite o definitivos, incluidas las propuestas de resolución y decretos sean necesarios para la ejecución de la citada delegación.

**Gazteria arloa**

**Área: Juventud**

**Zinegotzia: Unai Unsuain Elvira**

**Concejal: Unai Unsuain Elvira**

Jardun-eremua: Ordezkaritza hau dela eta, ahalmena izango du dagokion arloetako zuzendaritza eramán, kudeaketa egin, tramitezko edo behin-betiko dokumentuak sinatzeko, ordezkaritzaren baitan exekutatu beharrekoak exekutatzeko ebazpen-proposamen eta dekretuak egiteko:

Ámbito funcional: La delegación comportará tanto la facultad de dirección del área correspondiente, como su gestión, la firma de cuantos documentos de trámite o definitivos, incluidas las propuestas de resolución y decretos sean necesarios para la ejecución de la citada delegación.

**Ingurumen arloa**

**Área de Medio Ambiente**

**Zinegotzia: Jose Manuel Ferradas Freijo**

**Concejal: José Manuel Ferradás Freijó**

Jardun-eremua: Ordezkaritza hau dela eta, ahalmena izango du dagokion arloetako zuzendaritza eramán, kudeaketa egin, tramitezko edo behin-betiko dokumentuak sinatzeko, ordezkaritzaren baitan exekutatu beharrekoak exekutatzeko ebazpen-proposamen eta dekretuak egiteko:

Ámbito funcional: La delegación comportará tanto la facultad de dirección del área correspondiente, como su gestión, la firma de cuantos documentos de trámite o definitivos, incluidas las propuestas de resolución y decretos sean necesarios para la ejecución de la citada delegación.

**HIRUGARREN.** Ondoko zinegotziengan eskuordetzea jarraian aitatuko diren **zerbitzu zehatzak;**

**TERCERO.-** Efectuar a favor de los Concejales que se citan la delegación de

**Zerbitzu Zehatza: Salmenta ibiltaria eta**

**Servicio Específico: Venta ambulante y Tenencia**



**arriskutsuak izan litezkeen abereak izatea.**

**Zinegotzia: Jon Txasko Orgilles**

Jardun-eremua: Ordezkaritza hau dela eta, ahalmena izango du dagokion arloetako zuzendaritza eraman, kudeaketa egin, tramitezko edo behin-betiko dokumentuak sinatzeko, ordezkaritzaren baitan exekutatu beharrekoak (lizentzia-emateak, zigor-espediente ebazpenak, etab.) exekutatzeke ebazpen-proposamen eta dekretuak egiteko.

Zerbitzu berezia: Merkataritza, Turismoa, Ekonomia berrikuntza eta garapena.

**Zinegotzia: Asier Mujika Etxaniz**

Jardun-eremua: Ordezkaritza hau dela eta, ahalmena izango du dagokion arloetako zuzendaritza eraman, kudeaketa egin, tramitezko edo behin-betiko dokumentuak sinatzeko, ordezkaritzaren baitan exekutatu beharrekoak exekutatzeke ebazpen-proposamen eta dekretuak egiteko. Bereziki bereganatuko ditu Oarsoaldea S.A. eta Zinernaldea S.A.ren udal ordezkaritza, hain zuzen haien zuzendaritza-organoetara Udalaren proposamenak eramanez eta erakunde horiek egiten dutenaren berri emanez.

Horrez gain, ondorengo eginkizunak bereganatuko ditu:

- Enplegu-ekimenak, herrian bertakoak zein beste edozein erakunde-mailakoak.
- Ekonomia eta merkataritza munduko erakundeekin harremanak eduki.

**de animales potencialmente peligrosos.**

**Concejal: Jon Txasko Orgilles**

Ambito funcional: La delegación comportará tanto la facultad de dirección del áreas correspondiente, como su gestión, la firma de cuantos documentos de trámite o definitivos, incluidas las propuestas de resolución y decretos sean necesarios para la ejecución de la citada delegación (concesión de licencias, resolución de expedientes sancionadores, etc.).

Servicio específico: Comercio, Turismo, Innovación y Desarrollo Económico

**Concejal: Asier Mujika Etxaniz**

Ámbito funcional: La delegación comportará tanto la facultad de dirección del área correspondiente, como su gestión, la firma de cuantos documentos de trámite o definitivos, incluidas las propuestas de resolución y decretos sean necesarios para la ejecución de la citada delegación. En particular asumirá la representación municipal en la entidad Oarsoaldea S.A. y Zinernaldea S.A., trasladando a su órgano de dirección las propuestas municipales y dando cuenta de las actuaciones de dichos organismos en su demarcación.

Además de lo anterior asumirá las siguientes funciones:

- Iniciativas de empleo, tanto locales como de cualquier otro nivel institucional.
- Relaciones con entidades del mundo económico y comercial.



- Kasu egin merkatari, kontsumitzaile eta erabiltzaileei.

- Atención a comerciantes, consumidores y usuarios.

**Zerbitzu berezia: Funtzionario eta gainontzeko langileen posesio hartzea eta lan-kontratuak sinatzea.**

**Servicio específico: Toma de posesión de los funcionarios y demás empleados municipales así como la firma de los contratos laborales.**

Zinegotzia: Alazne Korta Zulaika

Concejal: Alazne Korta Zulaika

Jardun-eremua: Ordezkaritza hau dela eta, Alazne Korta Zulaika ahalmena izango du funtzionario eta gainontzeko udal langileen posesio-hartzea, eta lan-kontratuak sinatzeko, beti ere Giza Baliabideak saileko teknikariaren laguntza izango duelarik.

Ambito funcional: Delegar la firma de la toma de posesión de los funcionarios y demás empleados municipales, así como la firma de los contratos laborales, en la persona del Concejal de Régimen Interior Alazne Korta Zulaika, quien estará asistida a estos efectos por la técnico del Departamento de Recursos Humanos.

**Zerbitzu berezia: dokumentuen sinadura.**

**Servicio específico: delegación de firma de documentos**

Zinegotzia: Alazne Korta Zulaika

Concejal: Alazne Korta Zulaika

Jardun-eremua:

Ámbito Funcional:

ZIURTAGIRIAK: fede publikoaren baitan Idazkaritza Orokorreko titularraren sinadurari oniritzia eman.

CERTIFICACIONES: El visto bueno a la firma del titular de la Secretaría General en el uso de la función de la fe pública.

JAKINARAZPENAK: oro har agintari eta erakundeei, eta egunkari eta aldizkari ofizialetara bidaltzen diren iragarkien sinadurak.

COMUNICACIONES a autoridades y entidades en general, así como la firma de los anuncios que se envían a los diarios y boletines oficiales.

AGERPENAK: Alkatezaren aurrean egin

COMPARECENCIAS ante la Alcaldía



beharrekoak zinegotzi-ordezkarierara pasako dira.

pasarán a ser ante la concejala delegada.

**TRAMITEZKO AGIRIAK:** udal langileei dagozkien gaiak (enpresa-ziurtagiriak, epaitegiatarako deialdiak, etab.), beti ere eskubideak aitortzeko edo norbanakoen egoera juridikoak errekonozitzeko ebazpenak ez badira.

**DOCUMENTACIÓN DE TRÁMITE** en temas relativos al personal municipal (certificaciones de empresa, convocatorias a tribunales, etc.) que no sean resoluciones declarativas de derechos o reconocimientos de situaciones jurídicas individualizadas.

**LAUGARREN.- Ondoko izendapenak egitea:**

- Jon Txasko Orgilles jauna, Trafiko eta Garraio Batzordeko burua.
- Garazi Lopez de Echezarreta Auzmendi andrea, Gizarte Zerbitzuetako Batzordeko burua
- Garazi Lopez de Echezarreta Auzmendi andrea, Errenteriako "Jesusen Bihotza" Adinekoen Egoitzaren Patronatuko burua.

**CUARTO.- Efectuar los siguientes nombramientos:**

- Jon Txasko Orgilles como presidente de la Comisión de Tráfico y Transportes.
- Garazi López de Echezarreta Auzmendi como presidenta de la Comisión de Servicios Sociales.
- Garazi López de Echezarreta Auzmendi como presidenta del Patronato de la Residencia de Ancianos "Sagrado Corazón de Errenteria".

**BOSGARREN.** Zinegotziei eginiko eskumen-ordezkaritzak esan nahiko du, besteak beste, eskuordetze hori burutu ahal izateko egin beharreko guztia egin dezaketela, hau da, arloko zuzendaritza eraman, kudeaketa burutu, dekretuak egin, tramitezko edo behin-betiko dokumentuak sinatu, etab.

**QUINTO.-** La delegación general de competencias a favor de los citados Concejales a la que anteriormente se ha hecho referencia, comportará, tanto la facultad de dirección del Área correspondiente, como su gestión, incluida la firma de cuantos documentos de trámite o definitivos, incluidas las propuestas de resolución y los decretos, sean necesarias para la ejecución de la citada delegación.

**SEIGARREN.** Eskuordeturiko eskumenak eskuordetze honetan adierazitako muga barruan burutuko dira, betekizun hori dutenek ezin izango dutelarik beste organo edo zinegotziren batean eskuordetu.

**SEXTO.-** Las atribuciones delegadas se deberán ejercer en los términos y dentro de los límites de ésta delegación, no siendo susceptibles de ser delegadas por sus titulares en otro órgano o concejal.

Eskuordetza duten zinegotziek hartuko

En el texto de las resoluciones adoptadas por



dituzten erabakien azalpen-zatian ondorengo testua ipiniko dute egoeraren berri ematearren:

*“Hori guztiagatik, Udal honetako Alkateak.....e/a/n,.....zk.ko dekretu bidez emaniko eskuordetzearen ondorioz jasotako eskumenak baliatuta”.*

Eskuordetzearen bidez harturiko ebazpenak Alkateak —jatorrizko eskumenaren titularra— emanak bailiran hartuko dira eta, ondorioz, hura jakinaren gainean egonda, exekutagarriak izan eta zilegitasun-presuntzioa izango dute.

**ZAZPIGARREN.** Eskuordetza hauek data-egunetik aurrera izango dute eragina. Edonola ere, behin-behinekotasun izaera izango dute eta Alkateak indargabetzeko eskumena izango du.

Eskuordetza duten zinegotziek absente, kanpoan edo beste eragozpenen bat izanez gero, Alkateak bereganatuko ditu, jatorrizko eskumenaren titularra izanik, besterik gabe, zuzen-zuzenean eskuordeturiko eskumenak, hau da, horretarako ez da beharrezkoa izango ebazpen berri bat egitea.

**ZORTZIGARREN.** Erabaki honen berri ematea eskuordeturiko zinegotzietan eta jasota eta 24 ordu barruan inork ez balu ezer adieraziko, edo eskuordetzea baliatzen bada, onartu duela esan nahiko du.

**BEDERATZIGARREN.** Erabaki honen berri ematea Udaltzaren egingo duen lehenengo osoko bilkuran eta testua Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, lehen aitaturiko Legearen 44.2

los Concejales en virtud de esta delegación, se tendrá que hacer constar esta circunstancia, mediante la inclusión en la parte expositiva del siguiente texto: «Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de la delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, mediante Decreto núm..... de fecha.....»

Las resoluciones que se adopten por delegación se entenderán dictadas por esta Alcaldía, como titular de la competencia originaria, a quien se tendrá que mantener informado del ejercicio de la delegación, y gozarán, por tanto, de ejecutividad y presunción de legitimidad.

**SEPTIMO.-** Estas delegaciones tendrán efecto desde el día de la fecha. En todo caso serán de carácter indefinido, sin perjuicio de la potestad de avocación de esta Alcaldía.

En caso de ausencia, vacante, enfermedad o cualquier otro impedimento de los Concejales delegados, esta Alcaldía asumirá, directa y automáticamente, las competencias delegadas, como titular de la competencia originaria, entendiéndose a estos efectos ejercitada la potestad de avocación en base a la presente resolución, sin necesidad de una nueva resolución expresa en este sentido.

**OCTAVO.-** Notificar esta resolución a los Concejales afectados, entendiéndose aceptada la competencia delegada de forma tácita, si dentro del plazo de las 24 horas siguientes no se manifiesta nada en contra o se hace uso de la delegación.

**NOVENO.-** Dar cuenta al Pleno de esta resolución en la primera sesión que tenga lugar, y publicar su texto en el Boletín Oficial de la Provincia en cumplimiento de lo dispuesto por el artículo 44.2



artikuluaren xedatutakoari jarraiki.

del texto legal antes citado.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**4. Alkatetzak 2011ko uztailaren 18an emaniko dekretuaren —796 zk.koa—berri ematea, Gobernu Taldeko partaideen ordainsariak ezartzeko.**

**4.- Conocimiento del Decreto de Alcaldía nº 796 de fecha 18 de julio de 2011 de establecimiento de nivel de retribución de los miembros del Equipo de Gobierno.**

Ondorengo Alkatetza-dekretuaren berri eman da:

Se da cuenta del siguiente Decreto:

Udal berria eratutakoan, udal antolaketa eta funtzionamenduari buruzko akordioak hartzea dagokigu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean eta bat datozen gainontzeko araudietan xedatutakoari jarraiki.

Constituido el nuevo Ayuntamiento, procede la adopción de acuerdos relativos a la organización y funcionamiento municipales en consonancia con lo dispuesto en la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local y demás disposiciones concordantes.

Akordioetako bat Korporazioko zein partaidek izango duen erabateko dedikazioa eta zeinek partziala erabakitzea da.

Uno de los aspectos es el de la determinación de aquellos miembros de la Corporación que ejercerán su cargo con dedicación exclusiva y aquellos otros que lo harán de forma parcial.

Gai honi dagokionean indarrean dago Tokiko Araubide Oinarriak arautzen dituen Legearen 75. artikulua, Toki-erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 13. artikuluekin eta 2011ko Aurrekontua Exekutatzeko Arauaren 8. oinarriarekin —2011ko ekainaren 30eko pleno-akordio bidez onartua— bat etorritz.

Rige al efecto el artículo 75 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local, en consonancia con el artículo 13 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, así como la Base 8ª de la Norma de Ejecución Presupuestaria de 2011 modificada por acuerdo plenario de fecha 30 de junio de 2011.

Hori guztiagatik, Alkatetza honek, legeak ematen dizkion eskumenak baliatuz, ondoko erabakiak hartu ditu:

Por todo ello, esta Alcaldía, en el uso de las atribuciones que legalmente tiene conferidas adopta los siguientes

**ERABAKIAK**

**ACUERDOS**

**Lehenengo.-** Gobernu Taldeko partaideei ondorengo

**Primero.-** Establecer el nivel de retribución de los



ordainsariak ezartzea:

- Alkateak urteko 48.988 €-ko soldata gordina izango du arduraldi eskusiboagatik, Udalhitz-en 24. mailari dagokiona.

- Lehenengo Alkateordeak eta Hirigintza, Hiri-mantenimendu eta Auzoetako zinegotzi-ordezkarik Luis Maria Diez Gabilondo jaunak urteko 45.778 €-ko soldata gordina izango du arduraldi eskusiboagatik, Udalhitz-en 22. mailari dagokiona.

- Bigarren Alkateordeak eta Lehendakaritza eta Barne-antolaketa eta Kontratazio-mahaiko zinegotzi-ordezkarik Miren Alazne Korta Zulaika andreak urteko 34.478 €-ko soldata gordina izango du arduraldi eskusiboagatik, Udalhitz-en 15. mailari dagokiona.

- Hirugarren Alkateordeak eta Kultura eta Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak arloetako zinegotzi-arduradun Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi andreak urteko 21.880 €-ko soldata gordina izango du arduraldi partzialagatik, Udalhitz-en 13. mailari dagokiona.

- Trafikoa eta Garraioa, Ogasuna, Salmenta Ibiltaria eta Abere Arriskutsuak edukitzeko arloak kudeatuko dituen zinegotzi-ordezkarik Jon Txasko Orgilles jaunak 18.877 €-ko soldata gordina izango du %50eko dedikazio partzialagatik, egungo Udalhitz-en 17. mailari dagokiona.

- Ingurumeneko zinegotzi-ordezkarik Jose Manuel Ferradas Freijo jaunak urteko 37.754,78 €-ko soldata gordina izango du dedikazio eskusiboagatik, egungo Udalhitz-en 17. mailari dagokiona.

miembros del equipo de gobierno que a continuación se relacionan:

- Retribución del Alcalde: 48.988 € brutos anuales correspondientes al nivel de retribución de Udalhitz 24 y régimen de dedicación exclusiva.

- Primer Teniente Alcalde y concejal delegado de Urbanismo, Mantenimiento Urbano y Barrios, Luis María Díez Gabilondo, una retribución bruta anual de 45.778 € correspondiente a nivel 22 del actual UDALHITZ y régimen de dedicación exclusiva.

- Segundo Teniente Alcalde y Concejala Delegada del Area de Presidencia y Régimen Interior y Presidenta de la Mesa de Contratación, Miren Alazne Korta Zulaika, una retribución bruta anual de 34.478 € correspondiente a nivel 15 del actual UDALHITZ y régimen de dedicación exclusiva.

- Tercer Teniente de Alcalde y concejala delegada de las áreas de Cultura y Educación, Servicios Sociales, Garazi López de Etxezarreta Auzmendi, una retribución bruta anual de 21.880 € correspondiente a nivel 13 con una dedicación del 70%, de su tiempo de trabajo en régimen de dedicación parcial.

- Concejal Delegado de las áreas de Tráfico y Transportes, Hacienda, Venta Ambulante y Tenencia de animales peligrosos, Jon Txasko Orgilles, una retribución bruta anual de 18.877 € correspondiente a nivel 17 del actual UDALHITZ y con una dedicación del 50 % de su tiempo de trabajo en régimen de dedicación parcial.

- Concejal Delegado de Medio Ambiente, José Manuel Ferradas Freijó, una retribución bruta anual de 37.754,78 € correspondiente a nivel 17 del actual UDALHITZ y régimen de dedicación exclusiva.





Liberazio hau justifikaturik daude zinegotzi hauen udal eginkizunek halaxe eskatzen dutelako.

**Bigarren.** Izendatuek Udal Aurrekontuetan urtero ezartzen diren ordainsariak jasoko dituzte. Horrez gain, Gizarte Segurantzaz alta emango zaie eta, Udalaren gain joango dira erakunde horri ordaindu beharreko kuotak.

Ordainsari hauek jasotzeak berekin darama lehen adierazitako eginkizunak egitea. Hala ere, bateragarria izango da ordaindutako bestelako jarduera publiko edo pribatuekin, hots, aipatu Oinarri-legearen 75. artikuluan aurreikusi bezala, abenduaren 26ko 53/1984 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, Administrazio Publikoarentzat lana egiten duten langileriaren bateraezintasuna.

**Hirugarren.** Ondorioak jakinarazpen hau jaso eta interesatuek izendapena espresuki edo tazituki onartzen duten unean sortuko ditu. Era berean, erabaki honen berri emango zaie, jakin dezaten eta ondorioak sortzeko, Udaleko Kontu-hartzailetzari eta Giza Baliabide Sailei.

**Laugarren.** Izendapen hauek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean.

Ondoren, zera mintzatu da:

\* Herzog jaunak (PP) esan du ez dutela oso ondo ulertu, halere zuzena izango dela uste dute.

Esta liberación se justifica en la necesaria dedicación a sus tareas municipales.

**Segundo.-** Los anteriormente designados percibirán las retribuciones fijadas en los Presupuestos Municipales de los ejercicios correspondientes. A estos efectos serán dados de alta en la Seguridad Social, asumiendo la Corporación el pago de las cuotas empresariales que correspondan.

La percepción de estas retribuciones llevará inherente el ejercicio de las funciones anteriormente detalladas, siendo compatibles con el ejercicio de otras actividades retributivas, públicas o privadas, en los términos previstos en el artículo 75 de la citada Ley de Bases, en concordancia con lo dispuesto por la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de incompatibilidades del personal al servicio de la Administración Pública.

**Tercero.-** Los efectos comenzarán a contar a partir de la notificación de la presente y la aceptación, expresa o tácita, del nombramiento por los interesados. Asimismo se notificará a la Intervención Municipal de Fondos y al departamento municipal de Recursos Humanos para su conocimiento y efectos.

**Cuarto.-** Publicar los presentes nombramientos, tanto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa como en el Tablón de Edictos de la Casa Consistorial.

Se produce la siguiente intervención:

\* El Sr. Herzog (PP) manifiesta que no lo han comprendido muy bien, pero entienden que será correcto.



Mintzaldia amaitutakoan.

Finalizada la intervención.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**5. Alkatzak 2011ko uztailaren 19an emaniko dekretuaren —797 zk.koa— berri ematea, informazio-batzorde ezberdinetako partaideak izendatzeko**

\* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du Gai Zerrenda egin ondoren, alderdi Popularrak batzorde ezberdinetako zinegotzi-ordezkariek ez zituelako izendatu eta, puntu honen inguruko dekretu osagarri bat sinatu geroztik, hain zuzen 2011ko uztailaren 26an, 810 zk.rekin, emanikoa. Hortaz, orain bi dekretuen berri emango da, zeinek hitzez hitz zera baitiote:

**797 zk.ko dekretua, 2011-07-19an emana:**

Alkatzaren mozioa, Udalbatzak 2011ko ekainaren 30ean onarturikoak, hamabosgarren puntuan zera zioen:

“Akordio honen berri ematea udal talde politikoei. Bertan oroitaraziko zaie batzordeetako ordezkariak izendatu behar dituztela ondorengo eran: Bilduk bi ordezkari izango ditu; beste bi, Socialistas vascos- Eusko sozialistak, eta bana EAJ-PNV, alderdi Popularra eta Errenteriako Ezkerrak. Behin izendapena egindakoa, Udalbatzaren idazkariari jakinaraziko zaio akordioa hartzen denetik bost eguneko epean, eta gero, Alkate jaunak dekretu bidez izendatuko ditu”.

Talde politiko bakoitzari, Toki-erakundeen

**5.- Conocimiento del Decreto nº 797, de fecha 19 de julio de 2011, por el que se nombran miembros en las diferente comisiones informativas**

\* Interviene el Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) manifestando que, posteriormente a redactar el Orden del Día, con motivo de que quedaron sin nombrar los Concejales suplentes del Partido Popular en las diferentes Comisiones, ha firmado un Decreto complementario al que se señala en el presente punto, concretamente el nº 810 de fecha 26 de julio de 2011, por lo que se dará cuenta de ambos Decretos que literalmente dicen:

**Decreto nº 797 del 19/07/2011:**

La moción de Alcaldía, aprobada por acuerdo plenario de 30 de junio de 2011, decía en su punto decimoquinto:

“Comunicar este acuerdo a los diferentes Grupos Políticos Municipales, haciéndoles saber que deberán designar sus representantes en cada Comisión en la siguiente proporción: dos representantes de Bildu, dos representantes de Socialistas vascos- Eusko sozialistak, un representante por cada uno de los grupos de EAJ-PNV, Partido Popular y Errenteriako Ezkerra, notificándolo por escrito al Secretario General de esta Corporación en el plazo de cinco días a contar desde la adopción del presente acuerdo, quedando facultado el señor Alcalde para, mediante Decreto, proceder a su nombramiento”.

Habiendo procedido a comunicar cada Grupo



Antolaketa, Funtzionamendu eta Barne-araubide Juridikoaren 125.c artikularen arabera, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretu bidez onarturikoa, hainbat batzordetako izendapenak jakinarazi ondoren, Alkate honek

Político las correspondientes adscripciones a las diversas comisiones conforme a lo que dispone el artículo 125.c del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, este Alcalde

## ERABAKI DU

1. Ondoren aitatzen diren partaideak izendatzea Udalaren informazio-batzordeetako kide:

Orereta Erreterriako BILDU:

### Hirigintza batzordea

Batzordekideak:

Luis Maria Diez Gabilondo (batzordeburu)  
Asier Mugika Etxaniz

Ordezkoak:

Miren Alazne Korta Zulaika  
Garazi Lopez de Echezarreta Auzmendi

### Ogasuna batzordea

Batzordekideak:

Jon Txasko Orgilles  
Miren Alazne Korta Zulaika

Ordezkoak:

Luis Maria Diez Gabilondo  
Asier Mugika Etxaniz

## ACUERDA

1º.- Nombrar a los siguientes miembros de las comisiones informativas municipales que se citan a continuación:

Orereta Erreterriako BILDU:

### Comisión de Urbanismo

Vocales:

Luis María Diez Gabilondo (presidente)  
Asier Mugika Etxaniz

Suplentes:

Miren Alazne Korta Zulaika  
Garazi López de Echezarreta Auzmendi

### Comisión de Hacienda

Vocales:

Jon Txasko Orgilles  
Miren Alazne Korta Zulaika

Suplentes:

Luis María Díez Gabilondo  
Asier Mugika Etxaniz



**Euskara batzordea**

Batzordekideak:

Irune Balenciaga Arrese (batzordeburua)  
